



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa oharra

1.700 pertsonatik gora ez ditue beteko Sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko baldintzak, 2011ko datuen arabera

Bilbon, 2012eko maiatzaren 30ean. Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, Pilar Ardanza andrea, Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordean izan dau gaur, Bildu Taldeak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko baldintzak gogortu ondoren —erroldatze epea urte betetik hiru urtera aldatuta— hori jaso barik geratuko diran pertsonen buruzko datuak emateko. Gaur goizean Diputatu andreak esandakoaren arabera, igaz laguntza horren hartzaile izandako 36.887 pertsonetatik 1.747 pertsonak ez leukie baldintza barri hori beteko eta, beraz, galdu egingo leukie laguntza. Ardanza andreak esan dau pertsona horreek Aldundiak dituan “beste programa batzuk” erabili lekiezala.

Batzorderatze hori baino lehenago, Emakumezkoen jabekuntzaren aldeko politika aktiboak sendotzeari buruz Euzko Abertzaleak Taldeak eta Socialistas Vascos Taldeak alkarregaz batera aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena onartu dau ahobatez Gizarte Ekintzako Batzordeak. Proposamenean eskatzen jako Foru Aldundiari sendotu dagizala Emakumezkoen jabekuntzaren aldeko politika aktiboak Bizkaiko Emakume eta Gizonen Berdinotasunerako VI. Foru Planean, Bizkaia —Taldea bion eritxiz— Estaduko batez bestekoren azpitik dagoalako erabaki politiko nahiz ekonomikoak hartzerakoan emakumezkoen benetako botereari jagokonez. Proposamena dala-ta Bildu Taldeak aurkeztutako zuzenketa-eskea onartu dabe Euzko Abertzaleak eta Socialistas Vascos Taldeek. Zuzenketa horretan eskatzen da Bizkaiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planean zehaztutako emakumeen jabekuntzari lotutako ekintzen ebaluaketea —47 ekintza aurreikusten ziran— aurkeztea Batzar Nagusietan.

Batzordearen amaieran, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat onartu da. Horren bitartez, eskatu egiten jako Aldundiari “laguntza- eta jarduera-egitarau berezia egin dagiala haurdun egonik gizarte bazterketa arriskuan eta/edo guraso bakarreko egoeran eta umeak hazteko trebakuntza beharizan bereziakaz dagozan emakumeen laguntzeko”. Era berean, Talde horrek eskatu egiten dau lankidetzaren hitzarmenak sinatu daitezala “emakumeontzako laguntza emotea helburu daben Bizkaiko alkarte guztiakaz”. Euzko Abertzaleak Taldeak proposamen horri aurkeztutako zuzenketa-eskea be onartu da, giza talde horreei zuzenduriko laguntzak areagotu daitezkan “beharriaz gora egiten badabe”. Proposamenaren aurka Bildu Taldeak baino ez dau bozkatu.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa

30 de mayo. Comisión de Acción Social de las Juntas Generales

Más de 1.700 personas no cumplirían este año los requisitos para recibir la Renta de Garantía de Ingresos según datos de 2011

Bilbao, a 30 de mayo de 2012. La diputada de Acción Social, Pilar Ardanza, ha comparecido hoy en la Comisión de Acción Social de las Juntas Generales, a petición del Grupo Bildu, para ofrecer datos sobre las personas que se han visto afectadas por el cambio introducido en enero por el Gobierno Vasco que ampliaba el plazo de empadronamiento de uno a tres años para poder optar a la Renta de Garantía de Ingresos. Según los datos aportados por la diputada esta mañana, del total de las 36.887 personas que recibieron estas ayudas el año pasado, un total de 1.747 personas no cumplirían este requisito, lo que significaría su retirada. Ardanza ha sugerido que estas personas podrían beneficiarse de “otros programas” de protección social desde la Diputación.

Antes de producirse esta comparecencia, la Comisión de Acción Social, ha aprobado por unanimidad una proposición no de norma presentada conjuntamente por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, para que la Diputación refuerce las políticas activas a favor del empoderamiento de las mujeres en el IV Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bizkaia, ya que este territorio –según estos dos grupos- se sitúa por debajo de la media estatal en el poder real de las mujeres en el ámbito de toma de las decisiones políticas y económicas. Estos dos grupos han admitido una enmienda del Grupo Bildu que solicitaba que se aportara una evaluación de las actuaciones contenidas en el III Plan para la igualdad entre hombres y mujeres en donde se incluían “47 actuaciones” relacionadas con el empoderamiento de las mujeres en la Diputación.

Para terminar la sesión, la Comisión ha aprobado una proposición no de norma del Grupo Popular Vizcaíno para instar a la Diputación a poner en marcha “un programa específico de ayudas y actividades destinado a las mujeres gestantes con riesgo de exclusión social y/o a cargo de familias monoparentales y con necesidades de apoyo en el cuidado de sus hijos”. Este grupo, que pretende que además se suscriban convenios de colaboración con “todas” las asociaciones de Bizkaia que tengan como fin ayudar a este colectivo de mujeres, ha aceptado una enmienda del Grupo Nacionalistas Vascos para que la ampliación de las ayudas a estos colectivos se produzca solo “si aumentan las necesidades”. Bildu ha sido el único grupo en rechazar la propuesta.